



## **BEASAINGO UDALAREN ETA IÑAKI AZURMENDI PEÑAGARIKANOREN ARTEKO ELKARLAN- HITZARMENA**

### **HONAKOAK BATZARTUTA:**

Alde batetik, Alde batetik, Leire Artola Ugalde anderea, Beasaingo Udaleko Alkate- Presidentea, 35779121E NAN zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, Iñaki Azurmendi Peñagarikano, 72.448.165-M adinez nagusia dena, 72.448.165-M NAN zenbakiduna, bere burua ordezkatzuz jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

### **HONAKO HAU ADIERAZI DUTE**

- I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.
- III) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- IV) Beasaingo Udaleko 2023ko aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da Iñaki Azurmendi Peñagarikanoren alde, herri kirolak jardueren antolaketa eta sustapena helburuarekin.
- V) Iñaki Azurmendi Peñagarikanok garatzen dituen jarduerak eta diru laguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian herri kirolak jardueren antolaketa eta sustapena helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85



Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.l) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.19) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2023ko aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2022-2025 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, "JARDUERA FISIKOA ETA AISIALDIA SUSTATZEKO ETA BULTZATZEKO" helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 5. ildoaren 5.1. jarduketan barne hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

## KLAUSULAK

### LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Beasaingo Udala eta Iñaki Azurmendi Peñagarikanoren artean sinatu nahi den hitzarmenaren objektua da jarraian adierazitako jardueren antolatzea bi aldeek elkarlana zehaztea eta antolatutako jardueretan eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin Iñaki Azurmendi Peñagarikanori diru laguntza ematea.

-Beasainen Herri Kirolak jarduerak antolatzea. Sustapena. Loinatz Jaietako Jaialdia.

Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoa hitzarmen honen xede den diru-laguntzaren zenbateko osoaren gainetik dago, idatzi honen eranskin modura atxikitzen den aurrekontuan ikus daitekeen bezalaxe.

### BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea Iñaki Azurmendi Peñagarikanoren alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

Iñaki Azurmendi Peñagarikanoren betebeharrak dira:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.



- 2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- 3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaileak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- 4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.
- 5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.
- 6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.
- 7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.
- 8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.
- 9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.
- 10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.
- 11) Euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.
- 12) Kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.



## **HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.**

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, Iñaki Azurmendi Peñagarikanoren aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 5.812,00 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

- 3.000 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere onuradunak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Hitzarmena sinatzean baimena emango da, eskatzaileak berariaz kontrakoa adierazi ezean, Beasaingo Udalak zuzenean egiazta dezan eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela. Udalak automatikoki egiaztatuko du hori, behar beste aldiz, eta, horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. 887/2006 Legea, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena aplikatuz.

Egiaztapenari uko eginez Udalak ez du baimenik izango ofizioz agiriak eskuratzeko eta elkarteak eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu. Diru laguntzaren ordainketa burutuko da elkarteak Ogasun eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egoteari buruzko aitorpena edo agiriak aurkeztu ondoren.

- Diru laguntzaren azken ordainketa burutuko da onuradunaren justifikazioa jaso ondoren, diru laguntzaren xede zen jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatzen duena, jarraian adierazitako dokumentazioaren bitartez:
  - Burututako jardueren laburpen txostena.
  - Memoria ekonomikoa. Jardueren gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopien zerrenda (zenbakia, kontzeptua eta zenbatekoa), Diruzainak sinatua. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.
  - Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen



diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.

- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2023 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0261.481.341.00.23 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

#### **LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.**

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
  - b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
  - c) Prozedura judizialetako gastuak.
  - d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
  - e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.



## **BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.**

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

## **SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.**

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklarazioaren erantzukizunpean, diru laguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztagirak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2023ko urtarrilaren 15 data baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako diru laguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

- 1.- Burututako jardueren laburpen txostena.
- 2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:
  - a) Gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena.
  - b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.
- 3.- Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti



ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

#### **ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.**

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

#### **ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.**

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebehar eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru



laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

#### **BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.**

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2023ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

#### **HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.**

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta Iñaki Azurmendi Peñagarikanok 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

#### **HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.



Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

#### **HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.**

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2022ko abenduaren 1eko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2022-2025 aldirakoa, 2022ko abenduaren 13ko Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

#### **HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.**

Iñaki Azurmendi Peñagarikanok hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.



Iñaki Azurmendi Peñagarrikanok, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

#### **HAMALAU GARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA.**

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

#### **HAMABOS GARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.**

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

